

K...eta!
Kitto!

2017-IX-22

1028 zkia.

Naturaren indarra aurrez aurre



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

**ZERBITZUA
KUDEAKETA
ADMINISTRAZIOA**
30 urtetik gorako esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



JENDEA HARTZEKO
(aurrez-aurre eta telefonoz)
09:00-14:00 / 15:30-19:30



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f **Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **t** **Twitter**en: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maite Arrazola

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitetzeko (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LUPERIXA.- Lurjausia, luizia. "Azken egunetako euri haundixak luperixa galanta egin dabe goiko zelaixan".

LUPU.- Har mota bat. Zomorro pozoiniduna. Normalean, parte txarreko kokoei buruz esaten da. Batzuentzat erubea, gaztelarazko 'salamandra' ere esan nahi du. "Bedartzan nindoiala lupua zapaldu neban".

Konparazioetan asko erabiltzen da. "Lupua baiño gaiztuagua zan ha gizona". "Lupua baiño karuagua dabik gasoliña azken aldixan".

Madarikatua. "Txarri lupua! Neuk emongo deuat nik!".

astean esanak

"ConfesorGo aplikazioarekin aitortzak egiteko prest dauden apaizak non dauden azaltzen zaizkizu. Nafarroan hogeit bat apaiz gara horretan parte hartzen dugun apaizak. Jendeak normalean badaki bere parrokiaren ordutegiak eta noiz diren aitortzak, baina beste lekuetakoak ez. Jendea konfesatzen da oraindik; beharbada aitortza dagoeneko ez da bekatuak esatea, jendeak orain gidaritza bat behar du. Konfesatzea zure gauzak kontatzeko modu bat da, norbaitekin hiitz egiteko eta laguntza izateko"

(DAVID GALARTZA, LESAKAKO BIKARIOA)

"Kuriosoa da: Britainia Handia Batasunetik ateratzen denean, ingelesak Batasuneko hizkuntza izateari utziko dio, estatu bakoitza ofizialki hizkuntza bakar batek ordezkatzeko duelako Europar Batasunean, eta hor Britainia Handiak baino ez du ordezkari ingelesa. Hizkuntza batek mendeetan agindu dezake eta gero agintzeari utzi: frantsesarekin, latinarekin... gertatu da. Ingelesa etorkizuneko hizkuntza dela esatea ez da egia. Eta ingelesa komunikazio unibertsalerako hizkuntza? Munduko hizkuntzarik dibertsifikatu eta zatikatuenetakoa denean? Ideologia supremazista eta inperialistaren isla!"

(JUAN CARLOS MORENO, HIZKUNTZALARIA)

"Euskadi sariak, izenetik hasita, irain hutsa dira. Literatura nazional bat eta literatura erregional bat jartzen ditu parean. Literaturaren kontzeptu agrafu bat daukate sari horiek, hizkuntzak modalitateak baino ez zaizkienez. Euskaditar modalitate bi daukagu, beraz: euskaraz idazten dutenena eta erdaraz idazten dutenena, eta biak dira ama beraren haur jatorrak"

(KOLDO IZAGIRRE, IDAZLEA)

"Txapelketari begira, erretzeari utzi diot eta kirola egiten dut. Andoni Egañak lau txapel irabazi zituela erretzaila zela? Nik ere erretzen nuen. Orain erre gabe probatuko dut"

(JON MAIA, BERTSOLARIA)



ENRIKE ZUAZUA

Kataluniako azkenaurreko jokaldia

1997an IBMk garaturiko Deep Blue (Urdin Sakona) ordenagailuak Gary Kasparov munduko xake txapeldunari irabazi omen zion. Gauzak ez daude oraindik horren argi. Kasparov-ek IBM-ri tranpa egin izana leporatu zion, makinak gizaki baten aholku gehigarria izan ote zuen susmatuta.

Eta gauzak ez ziren guztiz argitu. Aurten Google-k garaturiko AlphaGo ordenagailuak Go jokoaren Ke Jie munduko txapeldunari irabazi dio zalantzarik gabe. Bai ordenagailu batak bai besteak erabiltzen duten jokoak Inteligentzia Artifizialaren algoritmoetan oinarrituta daude.

Gaur egun zalantza gutxi geratzen dira. Arau logikoen jokoetan makinak, azken batean, gizakia gaindituko dute, ez baitago dagoeneko, eta are gutxiago etorkizunera begira, mugarik makinak duten kalkulatzeko gaitasunarendako. Makinek jokaldi posible anitz gehiago aztertzeko gaitasuna izango dute, hurrengo jokaldietan beraiek izan lezaketen ondorio posible guztiak aztertuz. Horrek ematen duen abantailarekin gizakiarentzat asmatezinak diren jokaldiak sortzeko gaitasuna izango du makinak, azkenik garailu bihurtzeko. Gaurko makinak Goliath erraldoia dira eta gizakia, ordea, David nanoa. Eta Davidek gutxika-gutxika horrelako partida guztiak galduko ditu. Badira, hala ere, beste esparru batzuk gizakia irabazle den eta beti izango den, sormena artean denean. Gaur egun, oraindik ere, gizakiak sorturikoak dira margo, abesti eta olerki ederrenak. Egun hauetan harrituta jarraitzen ari gara Katalunian jokatzeko ari den partida.

Hedabideetan ez da leku askorik geratzen beste albisteetarako. Politikariak, parlamentuek, gobernuak, polizia, autzitegiek jo ta ke ari dira. Batzuk erreferenduma egiteko nahian eta beste batzuk berau ekiditeko. Nahiko argi dago nor den Goliath eta nor David joko horretan. Partida honen azken jokaldia urriaren 1ean jokatu da Kataluniako kaleetan. Baina ez da hori azken partida izango. Urriaren 2an seguruenik Espainiako estatuak ez du bere osotasuna galduko, baina bere aniztasunaren adierazleak nabarmenagoak izango dira guztien begietan. Orduan hasiko da partida berria. Jokalari biek nekea gainditu, bakoitzaren arrazoibideak orraztu eta etorkizun berriaren bila lanean jarri beharko dira, elkarrekin. Bakoitzaren aurreiritzi eta pasioak baztertu, pragmatikoki aritu beharko dira adostasun esparru eta eremu berriak garatzen. Goliath ezin du partida hori irabazi Daviden borondatearen eta sentimenduen kontra. Eta gaur irabazteak, paradokzikoki, ahuldu egin lezake gure Goliath erraldoia. Makinak ez du oraindik gizakiaren ahalmen sortzailea gainditu. Eta idatziriko legeek ezin izango dute gure gizartearen etorkizunaren zabalasuna mugatu.

Maite Narbaiza Atzegiko baillarako arduraduna izandakua hil zan astelehenian

Astelehen gabian hil zan, 71 urterekin, Maite Narbaiza euskaltzalia eta 16 urtetan Debabarreneko Txolartietako arduraduna izandakua. Badira urte batzuk Maite eibartarra Soraluzera juan zala bizitzera eta handik, Eibarren aurretik egindako moduan, parte hartu izan zeban gizarte maillako hainbat ekimenetan, arlo sozial, kultural eta politikuan, guztietan be biharra egitteko konpromisuari lotuta. Berbalagun ekimenian hartu zeban parte, euskaldunbarririk euskara mailla hobetzeko ahalegiñian eta, euskalduna eta euskaltzalia izatiaz gain, gure baillarako Atzegi alkarteko arduraduna izan zan 16 urtietan eta, gitxiagotasunak dakenen aldeko bere jardunari esker, Eguneko Zentrua zabaltzia be lortu zeban; horrez gain, Deparkel Parkinson Elkartiarekin egiten zeban lan. Politikan be jardun zeban eta, Soraluzen Eusko Alkartasuneko ziñegotzixa izan zan hainbat legegintzalditan, eta baita Bilduko Kontseilluko kidia be.



Menpekotasuna daken sendiak zaintzen dittuenendako ikastarua

Udalak eta Diputaziñuak alkarlanian antolatuta, menpekotasunen bat daken sendiak zaintzen dittuenendako doako ikastarua eskinduko dabe urritik azarora. Sendian programaren barruan egingo dan taillarra sei saiokua izango da eta Portalean emongo dabe urriaren 2, 9, 16, 23 eta 30ian eta azaruaren 16xan, 15.00etatik 17.00etara.

Matia Fundaziñoko adituak arduratuko dira klasiakin eta zaintzailliendako lagungarriak izan leikiazen gaixak, orotarikuak jorratuko ditue. Ikastaruan parte hartzeko izen-emotia



Pegoran izango da, iraillaren 28ra arte. Bihar dan moduan beteta aurkeztu biharreko agiri-xa Pegoran eskatu leike edo, bestela, Udalaren webgunian (www.eibar.eus) be dago eskuragarri.

Kamiseten zozketarako txartelak saltzen hasi dira

Amañako Jai Batzordiak SGAErekin (Egile eta Argitaratzaileen Elkarte Orokorra) dakan 40.000 euro inguruko zorra pagatzeko dirua lortzeko asmuarekin, foballeko jokalaria famatuen kamiseten zozketia antolatu dau Maite Markuerkiagak. Danera 180 bat sari banatzeko asmua dake: sari gehixenak jokalarixen kamisetak izango dira, ixa guztiak siñatutakuak, baiña baloiak eta beste materixal batzuk be oparituko ditue. Aurreko zapatuan hasi ziran txartelak saltzen eta, lehelengo eguneko salmenteri laguntzeko asmuarekin, Untzagan 70 bat maniki ipiñi zittuen, oparituko diran kamisetak jendiak ikusteko. Txartelak 2,5 euro balixo dabe eta baktotxian bi zenbaki dagoz. Koxkor, Kultu, Kontent eta Ongi Etorri tabernetan erosi leikez. Zozketia, barriz, San Andres egunian egingo dabe, notarixo baten aurrian. Bestalde, azaruaren 19ra arte kamisetak Untzagako jubilau etxian ikusteko moduan egongo dira, han ipiñi daben erakusketan: barixakuetan 19:30xetatik 21:30xetara zabalduko dabe eta zapatu eta domeketan 10:00etatik 14:00xetara.





Gaur arratsaldian hasiko dira jaixak Legarren

Arrajolape alkartiak antolatuta, asteburu honetan ospatuko ditue auzoko jaixak Legarren. Gaur arratsaldian ekingo ditse programari, 19:30xetan txosna zabaldu eta umiendako prestatu dituen jolasekin. Handik ordubetera, barriz, tortilla txapelketia hasiko da eta, ondoren, auzoko gaztiendako afarixa preparauko dabe. Eta, afa- lostia girotzeko, zumba saia eta musika emanaldixa antolatu ditue. Bixar kirol pro- ba batekin hasiko dabe eguna, 11:30xetan: iaz izandako harrera onarekin animauta, aurtan be "Kronoeskillaria" izenekua joka- tuko dabe Mekolarako eskillaretan gora Legarreraiño. Eguardixan, barriz, pintxo-

poteua egingo dabe, trikilarixak eta bu- ruhaundixak lagunduta eta, ondoren, au- zokuendako bazkarixa emongo dabe Bizimi- mina alkartekuak. Bazkalostia girotzeko, musikia egongo da DJ Arnoren eskutik eta arratsaldeko 17:00etan Antxo eta Pantxa bikotiak "Museoaren taupadak" umiendako ikuskizuna eskinduko dau. Ondoren txokolatia banatuko dabe eta 19:30xetatik aurrera kalejiran ibilliko dira, buruhaundixak eta Mugi Panderoa taldiak lagunduta. Kalejira amaittuta, erromerixia egingo dabe Mugi Panderoa taldiarekin eta gabian, 22:30xetan, Oso Basatis eta The Rockos taldekuak kontzertua emongo dabe.

Eibar be Mugikortasun Iraunkorraren alde

Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astiarekin bat egin dau Udalak. "Partekatzeak urrunago eramaten zaitu" goiburuari jarraituta, asmua herritarrak sensibilizatzia da, norberak bere automobilla alde batera laga eta oiñez, bizikletaz zein garraio publikuan ibiltzera animatzeko. Horren harira, Udaleko Ingurumen Arluak hainbat ekimen antolatu ditue. Egitaraua aurreko domekan hasi zan, Eibarko Txirrindulari Elkar- teak antolatutako Bizikleta Egunarekin. Horrekin batera, martitzenian Fredrik Gertten zuzendari suediarren "Bikes vs Cars" do-

kumentala emon eben Coliseo antzokixan eta Armagintzaren Museoan, barriz, "Pedalei eragiten 50eko hamarkadan" erakusketia inauguratu eben. Horrekin batera, atzo UNI Eibar Ermua BHIko ehun bat ikasle eta irakaslek Mugikortasun Iraunkorraren Ibi- laldixan hartu eben parte eta arratsaldian Juan Palacios eibartarraren "Pedaló" es- kindu eben. Eta gaur "Autorik gabeko egu- na" dala eta, Udalbusa eta taxi-busa doan erabilli leikez. Egitaraua biribiltzeko, astele- henian hasiko dan bizikletan ibiltzen ikas- teko ikastarua be antolatu dabe.



Martitzenean zabaldu zuten erakusketa, hainbat bizikleta zaharrekin, Museoan.
Silbia Hernandez

autuan

1.874 EURO BATU ZITTUAN PSE-EE-K

Arrate egunian Eibarko sozialistak ipiñi eben txosnan 1.874 euro batu zittuen eta, aurretik esandakuari jarraituta, diru hori minbizixaren kontrako alkartiari laguntzeko erabiliko dabe. Egunian zihar txosnara zeozer jatera edo edatera juandako guztieri eskerrak emon nahi ditse, euren laguntasunarengaittik.

SAN MIGUEL JAIXAK AGINAGAN

Egunian, San Miguel bezperia dala ospatzeko, 18:00etan kanpai iraulketia egingo dabe Aginagako ermittan. Bestela, San Miguel jaixak ospatzeko antolatu dituen ekitaldixak hurrengo asteburuan, irailaren 29tik aurrera izango dira.

ARRATEKO JAIXETAKO ZOZKETIA

Jaixak Herrixak Herrixandakok Arrateko jaixetan saldutako errifaren zozketan, saritutako zenbakixak 3230 eta 1008 izan dira.



EIBAR KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT!

Kataluñiaren aldeko konzentraziñua

Gaur arratsalderako, 19:00etarako konzentraziñua deittu dau Eibarko EH Bilduk, Untzagan. "Eibar Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat" goiburuari jarraituta, Katalunian deittutako erreferendumaren harira gertatzen ari diranen aurrian eibartarren alkartasuna azaltzeko alkarrataratzia izango da.

IDURRE
IRIONDO

EMO Hannover azokara juandako euskal enpresak babestu ditu SPRI-k

SPRI taldiak bixar arte martxan egongo dan EMO Hannover azokara (Alemania) juandako 49 enpreseri babesa emon detse eta, horren harira, Europa maillan makiña-erremintaren inguruan egitten diran azoken artian inportantiena dan honetara juan da Alex Arriola eibartarra SPRI-ren zuzendari nagusixa. Azokan parte hartzeko 45 herrialdetako 2.200 erakusketarik emon dabe izena eta bixar atiak itxi orduko 150.000 bisitari inguru jasotzia espero dabe antolatzailliak. Arriolaren berbetan, "euskal enpresak mailla gorenian lehiatzen segitzen dabe eta munduko marka onenen pare dagoz. Kanpuan saltziaren alde egin daben apustuari esker, munduko edozein txokotan anbiziñorik haundixena daken proiektuak lortzeko gai dira".

Zoragarri ibilli ziran Arrate izenekuak

Urtero lez, Kofradixa Eguna pasau eta hurrengo domekan, aurreko asteburuan alkartu ziran Arrate izenekuak euren jaixa ospatzeko. Aurtengua 21. ediziñua izan da eta, aurrekuetan egindakuaren bidetik, goizetik ekin zetsen egitarauari.



Batzuk ohitturiari eutsi eta Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik oiñez igo ziran Arratera. Hamarretakua jan eta mezia ospatu eta gero, jolasak, bazkariak eta dantzaldixak bete eben egunaren bigarren zatixa.



Erabilittako liburuak euro batian salduko dittue Untzagan

Eibar Sahara Elkartekuak asteburuan Untzagan egongo dira, beste batzuetan lez bigarren eskuko liburuak saltzen. Azokia egun bixetan, zapatuan eta domekan zabalduko dabe Untzagan, 11:00etatik 19:00etara eta liburu guztiak euro batian egongo dira salgai. Horrekin batera, Saharako errefuxiatueri laguntzeko erropak eta oiñetakuak jasoko dittue: 8-16 urte bittarteko haurrendakuak bihar dittue, egoera onian.

Doako hiru saio eskinduko jakoz Ekonomia Feministari

Ekonomia Feministaren inguruko jardunaldixak egongo dira datorren astian, astelehen, martitzen eta egueñian, Udalaren Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen eskutik. Hiru egunetan saioak irekixak eta doakoak izango dira eta hainbat gairi helduko detse. Saiuak Portaleko areto nagusixan izango dira, 17:00etatik 20:00etara. Lehelengo bi egunetan Amaia Perez Orozkok dinamizatuko ditu eta gaztelerez garatuko dira. Azken egunekua, berriz, Emagin alkarteko Marina Sagastizabalek gidatuko dau, euskeraz.





Urkizuko dorreak 235.000 €

Pisu altua. Argitsua.
4 logela eta bi komun.
Balkoi handiarekin.



Ipuruako dorreak Galdetu

Pisu altua. Bista ederrak.
3 logela, 2 komun. Balkoi
handiarekin. Ezinhobea.




Mekola Galdetu

4 logela, 2 komun. Kalefakzioa
eta igogailua. Ganbararekin.
Sarbide egokiak.



Mekola Galdetu

180 m². Ganbararekin.
2 garaje-leku. Ezinhobea.



Arrate bide 157.000 €

Dena kanpora begira. 3 logela,
kalefakzioa eta igogailua
egitekotan. Berriztua.



Muzategi 250.000 €

Erdiberrria. Pisu altua.
Eguzkitsua. 2 logela,
2 komun.



Arane Galdetu

Apartekoa. 3 logela, 2 komun.
2 garaje aukeran.



Estaziño 220.000 €

Pisu altua. 3 logela, 2 komun.
Ganbara handia.



Arragueta 118.000 €

3 logela. Igogailua kaleraino.



Ego Gain Galdetu

Eraikin berria. 2 logela,
2 komun. Garaje itxia
aukeran.



Urkizu 80.000 €

Igogailua kaleraino.
Konpontzeko.
Prezio negoziagarria.



Urkizu 94.000 €

Atikoa. Oso polita.
Igogailua kaleraino.



Errebal-Muzategi Galdetu

Erdiberrria. 3 logela, 2 komun.
Garajea aukeran.



Isasi 165.000 €

Bista onak. 3 logela.
Igogailua kaleraino.



Urtzaille 170.000 €

Pisu altua. 4 logela.
Igogailua kaleraino.



Ubitxa 132.000 €

Primerakoa. 2 logela.
Kalefakzioa eta igogailua.
Garaje itxia aukeran.



Ifar kale 160.000 €

Pisu altua. Apartekoa.
Kalefakzioa eta igogailua.



San Juan 200.000 €

Pisu altua. Berriztua, 3 logela,
2 komun. Kalefakzioa
eta igogailua.



T. Etxebarria 190.000 €

3 logela. Kalefakzioa
eta igogailua kaleraino.



Amaña 85.000 €-tik

2 eta 3 logelakoak.
Konpontzekoak eta
konpondutakoak.



Isasi 220.000 €

Pisu altua. 3 logela, 2 komun.
Inbertitzaileentzat oso
interesgarria.



Legarre 137.000 €

Gazteentzat aproposa.
Oso eguzkitsua. Guztiz
berriztua. 3 logela.



Bidebarrieta 175.000 €

3 logela. Igogailuarekin.



San Juan Galdetu

Pisu altua. 4 logela.
Kalefakzioa eta igogailua.



Aldatze 127.000 €

Gazteentzat aproposa.
Bista ederrak. 3 logela.



Indarberrituta dator BERBETAN egitasmoa

Martitzenean aurkeztu zuen BERBETAN egitasmoaren ikasturte berria ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Portaleko areto nagusian egin zen ekitaldian. BERBETANek euskera praktikatzeko taldeak eta aukerak eskaintzen ditu Eibarren. 15 urte daramatza ahozko euskera hobetu nahi dutenei aukera hori eskaintzen. 37 talde daude, 250 lagun inguru, eta aurtengo erronka nagusia parte-hartzea indartzea eta jende gehiagorengana heltzea da.

Euskaldun berri edo euskera ikasleei eta euskeraz jakin arren erabiltzeko ohiturarik edo aukerarik ez dutenei astean behin biltzeko eta giro informal eta naturalean euskera praktikatzeko aukera ematen zaie. Taldeetan euskeraz ondo moldatzen direnek ere hartzen dute parte. Baina euskera maila hobetzeaz haratago, beste balio batzuk ere hartzen ditu kontuan BERBETANek: ondo pasatzea, jendea ezagutzeko gogoia, gizartearekiko konpromisoa, jaso eta emateko nahia... Balio horiek oinarri hartuta jaio zen 2016ko irailean "Ongi Etorri Berbetan" egitasmoa. Elkarbizitza sustatzeko helburuarekin, bertan-bertako zein beste kultur edo jatorri bat duten herritarrak biltzen dira taldeetan, astean behin, auzoka. Euskera eta euskal kulturaren ikuspegitik integrazioa eta kultur aniztasuna lantzen dira.



Patxi Lejardi Eibarko Udaleko euskara zinegotzia, Idoia Sarasqueta Gizartekintza zinegotzia, Ekaitz Olaizola ...eta kitto!ko presidentea eta Ainara Lavado euskara elkarteko hizkuntza normalizazio programetako arduraduna.

Giro natural eta informalean euskera praktikatzeko aukera ematen dute BERBETANeko taldeek

ZER DA?



Ahozko euskera hobetzeko, erraztasuna lortzeko, beldurra kentzeko, euskera gehiago erabiltzeko, euskal harreman sarea zabaltzeko **mintzapraktika egitasmoa** da, eta euskera praktikatzeko taldeak eskaintzen ditu.



Gurasoen arteko mintzapraktikako egitasmoa da. Guraso-taldeak osatzen dira euskera praktikatzeko.



Harrera eta elkarbizitzarako programa da. Taldeak Urki, Ipurua eta Urkizun elkartzen dira, astean behin. Elkar ezagutza eta kultur aniztasuna sustatzeko egitasmoa da.

NOLA HAR DEZAKET PARTE?

BERBETAN

Astean behin elkartzen diren **taldeetan** (taberna batean zerbait hartzen, paseoan...) Astelehenetik ostiralera, goiz edo arratsaldez.

GURASOAK BERBETAN

Berbetan-en moduan **astean behineko taldeetan** eman daiteke izena baina baita **talde naturaletan** ere, hau da, lehendik eginda dauden taldeetan: **kuadrillak, eskola kanpoan, kirolaren inguruan** elkartzen diren guraso-taldeak...

ONGI ETORRI BERBETAN-era

Urki, Urkizu eta Ipurua **auzoetan**, astelehen, astearte eta asteazkenetako taldeetan, goiz edo arratsaldez.

EKINTZA OSAGARRIAK

Asteroko saioez gain, ekintza osagarriak ere eskaintzen dira hala nahi dutenentzat: txangoak, tailerrak, hitzaldiak... Eta iazko arrakasta ikusita, aurrean, jardueretako batzuk, elkarrekin egingo dituzte Berbetan eta Ongi Etorrikoek.



Zabalik dago Txalan Txalan bikote linguistikoetan izena emateko epea

Ongi Etorri egitasmoaren haritik sortutako egitasmoa da. Bikoteen arteko hizkuntza-trukaketa eskaintzen du.

- Izen-emateak: Irailaren 18tik urriaren 5era arte
- Elkarrizketak arduradunarekin: Urriaren 13ra arte.
- Bikoteen arteko aurkezpena: Urriaren 19an, 19:00etan ...eta kitto!
- Harremanetarako: Emaila: ongiotorri@etakitto.eus / Telefonoa: 943200918 / Helbidea: Urkizu 11 (solairuartea) Eibar

PARTE-HARTZAILEEN BERBAK



GORKA GUENAGA

"Euskaldun zaharra naiz eta euskeraren alde zerbait emateko gogoia nuelako eman nuen izena. Kuadrilla berri bat irabazi dut, giro ona sortzen da, lasai, lagunartekoa, eta presiorik gabe euskeraz berba egiteko aukera eskaintzen die euskera maila hobetu nahi dutenei".



DAOUDA NIANG

"Iazko esperientzia oso positiboa izan zen. *Ongi Etorri Berbetan-era* oso ondo dago euskal kultura ezagutzeko eta euskarara hurbiltzeko".



SARA LAMAS

"Euskaldun berria naiz. Lehenengo alabaz haurdun gelditu nintzenean bikoteak eta biok erabaki genuen etxeko hizkuntza euskera izango zela, eta euskaltegian eman genuen izena. Eta orain, gure auzoan, Urkin, euskera praktikatzeko guraso taldetxoak osatu dugu".



IKER OYARBIDE

"Euskal praktikatzeko aukerarik ez nuelako eman nuen izena mintzapraktika taldean. Modu informalean elkartzen gara eta oso ondo pasatzen dugu. *Txalan Txalan* bikote linguistikoetan ere ibili naiz eta guztiz gomendagarria da".



AITOR AIZPURUA

"Jende berria ezagutzea gustatzen zait, eta norberaren burua hobeto ezagutzeko ere oso baliogarria da. *Txalan Txalan*-en jardun dut. Beti hitz egiten da kultur aniztasunaz baina gero beti airean gelditzen da".

NOLA EMAN DITZAKET IZENA?

Izen-ematea zabalik dago. Horretarako diptikoak herri osoan banatu dira, eta **etakitto.eus** webgunearen bitartez, elkartea@etakitto.eus helbidean edo 943 20 09 18 telefono zenbakira deituta ere egin daiteke. Doakoa da eta ikasturteko edozein momentutan egin daiteke.

BERBETAN-eko EKINTZA OSAGARRIAK

San Blas ikastaroa.



Olentzero bisitatzen Mirandaolan.



Irteera Zugarramurdira.

Ekintza osagarriak ere eskaintzen ditu BERBETAN-ek: txangoak, tailerrak, hitzaldiak... Eta iazko arrakasta ikusita, aurreten, jardueretako batzuk, elkarrekin egingo dituzte Berbetan eta Ongi Etorrikoek.

Berbetan JAIALDIA

IRAILAK 22 (ostirala) 17:30etik 19:00etara **UNTZAGAN**

eskulanak eta puzgarriak

eta auzoetan...

eskulanak eta txokolatada

- Urkin: Ceba parean irailaren 26an
- Amañan: Legarreko frontoian irailaren 27an
- Urkizuko parkean: irailaren 29an

Auzo guztietan 17:30ean

Antolatzaileak

Kitto! Etorrikoek

Elkarrekin

Elkarrekin

Jaialdi ikusgarria egingo da gaur Untzaga plazan

Eskuorriak banatzearekin batera, egitasmoen berri ematera kalera irtengo dira BERBETAN-eko arduradunak. **Gaur, barixakua**, haur eta guraso guztientzako jaialdi ikusgarri eta dibertigarria egingo da Untzagan, 17:30etik 19:00etara. Denetarik egongo da, ondo pasatzeko moduko gauza mordoak: Irrien Lagunen puzgarriak alde batetik, eta eskulanak egiteko mahaia bestetik.

Datorren astean auzoetan

Auzoetara ere joango dira antolatzaileak egitasmoen berri ematera: **Irailaren 26an Urkin** egongo dira, Ceba taberna parean, **27an Legarreko frontoian** eta **29an Urkizuko parkean**. Arratsaldeko 17:30etatik aurrera umeentzat jolasak eta txokolatada prestatuko ditugu auzoetan.



ASIER MURUAMENDIARAZ KORTABERRIA

2017ko irailaren 17an hil zen

ESKERRIK ASKO lagundu diguzuen danori, eta eskerrak zuri, Asier, une latzetan umoria ipintziarren.

ETXEKOAK





Baldintza bereziak.
HIRIERDI PROMOZIOA, AZKEN FASEA.

Finantziario baldintza ezin hobekak etxebizitzarako maileguetan

Informazio gehiago Errebal 9an, EIBAR.
Telefonoa: 943 203 940

Bost kategoriako hurakana zen Irma Karibeko uhartetara iritsi zenean, irailaren 6an. Ekaitz tropikal moduan hasi zuen bere bidea Ginean, Afrikan, abuztuaren 27an, eta Atlantikoaren ur bero eta hezetasan maila altuei esker indarra hartu eta Barbuda uhartea gogor jo zuen. Ondoren etorri ziren Antigua, Aingira, San Martin, San Bartolome, Puerto Rico, Dominikar Errepublika, Turkak eta Caicoak, Kuba eta Florida (AEB). Han zegoen Maite Arrazola eibartarra, Irmaren bidean.



14 euskaldun bildu ziren etxe berean Irma Floridatik igaro zenean.

Naturaren indarraren LEKUKO



Arrazolaren senarra pilotaria da eta Danian (Florida) bizi izan dira hainbat urtetan. "2010ean Euskal Herrira bueltatu ginen bizi izatera, eta zazpi urte egon gara etorri gabe", esan digu telefonoren beste aldetik. "Aurten oporrak hartzeko aukera geneukan eta etortzea erabaki genuen". Bidaia planeatu ostean jakin zuten Irma Floridara ailegatzekoa zela, "eta zailtzak izan genituen, sei urteko alabarengatik batez ere". Hala ere, Arrazola eta senarrak bazuten nolabaiteko esperientzia urakanekin "eta animatu egin ginen". Arazoa, gero, bidaiatzeko dataekin izan zuten. "Irma irailaren 9an zen Floridara heltzekoa, za-

patuan, gure moduan, eta ezin genuen hegazkina hartu. Beraz, hegaldia barixakura aurreratu genuen".

Miamira iritsi zirenean oso jende gutxi zen bertan, "hiri fantasma zen". Aireportuan ere oso jende gutxi zegoen lanean. "Pentsatzen dut gurea azkenetako hegaldia izan zela". Lagun batzuk bila joan zitzaizkien, "oraindik pilotan egiten duten lagunak ditugulako hemen", eta euren etxera jo zuten zuzenean, Irmaren zain. "Urakana pasatu den aurreko aldietan ere denak etxe berean elkartu izan gara, bakarrik ez egotearren".

Urakan askoren bidean izan da beti Florida, beraz, protokoloa ezarrita daukate horrelako

egoerei aurre egiteko. "Nahiko ondo prestatzen dira", Arrazolaren berbetan. Hartu behar diren neurrien artean, "ezin dituzu etxe kanpoan mahai edo jarlekuak utzi, jaurtigaiak bezala irteten direlako haize bortitzarekin. Dena ondo ixten dute. Leihoei oholak jartzen dizkiete aurrean eta batzuek burdinezko pertsiiana bereziak ere badituzte".

Florida pareko uharteak jo zuenean abiadura moteldu eta egun bat atzeratu zen urakanaren etorrera. Euria eta haizea hasi ziren barixaku gauean eta telebista bitartez jarraitu zuten Irmaren ibilbidea. Urakanak mende balderantz jo zuen, Daniatik urrunduz, eta Arrazola eta familiak euren etxera joatea erabaki zuten. "Hamalau pertsona geunden han, lurrean lo egin behar genuen, umeentzat deser osoa zen eta handik joatea pentsatu genuen".

Zapatuan, etxera heldu zirenean, ez zegoen argirik. "Gau horretan haize handia hasi zen, euri gehiago egin zuen eta domeka osoa etxetik irten gabe geratu ginen, astelehenera arte". 32 ordu egin zituzten etxean, urakanaren haserrea entzuten. "Zuhaitzak erori ziren, euria gogor egin zuen, argi barik egon ginen, beroarekin... Umeengatik



Irmak kalteak eragin zituen Arrazolaren etxe parean.

pixka bat arduratuta geunden, baina oso ondo pasa genuen!". Mimika egiten, jolasean *"eta aurreko egunean egindako makarroi hotzak jaten"* pasa zuten denbora, kanpoan Irmak bereak eta bi egiten zituen bitartean.

Arrazolak kontatzen digunaren arabera, *"AEBn etxe baten barruan bazaude, normalena da zuri ezer ez pasatzea, baina karabanetan edo uharteetan bizi bazara, arriskua handiagoa da"*. Lurra ukitzean indarra galdu bazuen ere, *"nahiko gogor jo zuen Irmak hemen"*. Kalera irteetan zuhaitzak lurrean edo etxeen gainean botata, hesiak apurtuta eta bestelako kalteak ikusi zituen Arrazolak. *"Gurean ez zen kalte handirik izan, txarrena izan da egun batzuetan argi gabe egon garela"*.

Ura lortzea zaila izan dela aipatu digu Arrazolak, *"jendea izutu egiten da eta hilabete baterako erosketak egiten ditu"*. Hondamendiak, gainera, harrapaketarako momentu aproposak dira, baina oraingoan ez du horrelakorik entzun eibartarrak. *"2006an Vilma urakana pasa zenean bai. Hurakaren begia hemendik pasa zen, kalte handi-agoak egon ziren eta demaseko harrapaketak egon ziren"*. Horrelakoak ekiditeko etxeratze-agindua eman dute Floridan, *"eta gauetan ezin daiteke kalean ibili"*.

Ekaitzaren ostean barealdia omen dator, baina José, María eta beste urakanek ez dituzte momentuz Karibe eta inguruetako herrialdeak bakean utziko. *"Guk ez dugu begiratu ere egin"*, dio Arrazolak. Emozio handiko oporrak eurenak, zalantza gabe.

Peruko uholdeak urrutitik sufritzen

El Niño Costero fenomenoak gogor as-tindu zuen Peru urte hasieran. Uholdeak, ekaitz elektrikoak eta haize bolada bortitzak bata bestearen atzetik ailegatu ziren eta 100



El Niño Costero fenomenoak ur eta lokatzez bete zituen Peruko zonalde asko.

hildakotik gora izan ziren horren ondorioz. Herrialdearen iparraldea oso kaltetua izan zen, Piura ingurua, Egoaizia Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde eibartarrak hainbat proiektu garatzen dituen gunea.

Lima hiriburuak ere eurite gogorak jasan zituen, eta hainbat barruti lokatz eta urez estali ziren. Chosica eta Ate Vitarte departamenduak asko kaltetu zituen fenomenoak, eta baita Ñaña ere, Nathali Chuchónen ahizpa bizi den toki. Orain dela urte batzuk Eibarrera etorri zen bizitzera Chuchón abeslari perutarra, eta hemen bizi da bere senar eta alaba txikiarekin. Milaka kilometrotara bizi izan zuen bere herriko tragedia, *"ezintasun, pena, tristura eta amorruarekin"*, baina bere eskuan zegoena egin zuen herriki-deei laguntzeko.

Lagunek Whatsapp bitartez eman zioten Peruko uholdeen berri eta *"dardarak"* sentitu zituen hasieran. *"6. pisuan bizi den lagun batek esan zigun dena suntsituta ikusten zuela, lokatza nonahi, etxeak birrinduta"*, dio atsekabetuta. *"Zeukan guztia galdu zuen jende asko dago"*. Abendutik urtarri-lera Perun egon zen Chuchón senarrarekin eta alabarekin, *"eta izugarria da zuk ezagutzen dituzun tokiak, errepide nagusiak eta abar, ur edo lokatz azpian ikustea"*. Bere ahizparen etxea ere desagertzeko arriskuan egon zen. *"Alboko etxeko pareta bota zutelako salbatu zen"*.

Hondamendiaren aurrean, aurretik aipatutako Chuchónen lagunak eta beste hainbat herrikidek talde bat osatu zuten kalte-tuei lagundu ahal izateko. *"Berehala bildu ziren gosariak prestatu eta jendearen artean banatzeko"*. Bera ere ez zen geldirik egon

eta nola lagundu ahal zuen pentsatzen hasi zen lehen momentutik. *"Kalean abestea pentsatu nuen, dirua jaso eta hara bidaltzeko"*, baina Eibarko Cielito Musika Bandak zerbait handiagoa egitea eskaini zion. Carlos Sánchez-Barba bandako zuzendaria da Chuchónen senarra, eta taldeko kideen onespina jaso ondoren, Peruko uholdeen-gatik kaltetu direnen aldeko kontzertua antolatu zuten Egoaizia eta Udalaren laguntzarekin.

Bikoteak azaltzen duenez, *"azkar egin behar zen dena. Tamalez, hondamendia hedabideetatik desagertzen denean jendearen burutik ere desagertzen da, eta ezin genuen denbora gehiegi pasatzen utzi"*. Oso pozik geratu ziren Eibarko hiriak emandako erantzunarekin. *"Peru osoaren izenean eskerrak eman nahi dizkiot Eibarko hiriri, beti da solidarioa"*, Chuchónen berbetan. Udalak ere 2.000 euro eman zituen, *"eta Udaleko Patxi Lejardi eta Jose Luis Gonzalez bikain portatu ziren gurekin"*, dio Sánchez-Barbak.

Jasotako diruaren zati bat Egoaiziak kudeatu zuen, *"Piura oso kaltetua izan zelako"*. Beste zati bat, ostera, Chuchónek berak kudeatu zuen. *"Beheko jendeak beheko jendeari laguntzea zen nire asmoa, modu zuzenean egitea, ezagutzen eta konfiantza osoa dudan jendearen bitartez"*. Bere ahizpa irakaslea da Perun eta haren bitartez bideratu zuen laguntza, *"dena galdu zuen jendeari emateko, nahikoa izan ez arren"*.

Hilabeteak pasa dira eta Peruko hainbat toki lokatzetik berreraikitzen ari dira oraindik. *"Laguntza asko behar da, jasotakoa ez da nahikoa eta ni prest nago edozer gauza egiteko"*, dio adoretzu Chuchónek.



Nathali Chuchón-ek, Cielito Musika Bandak, Egoaiziak eta Udalak Perun kaltetuen aldeko kontzertua eskaini zuten maiatzean.

Liburuak

Mediterranea, “slow food-a”, begetarianoa... zein dieta aukeratu?

eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—



Eibarko Liburutegian aspalditik nabaritu dugu elikadura, nutrizioa, dietak... interesa pizten duten gaiak direla. Askotan etortzen dira guregana galdetzerik ea makrobiotikari buruz zerbait dugun, kolesterolak jaisteko errezeta-liburu bat behar dutela, edo begetarianoa izanda proteina falta ez izateko zer egin behar den argitzen duen liburu baten eske.

Modan ote dago gaia? Kontzienteagoak gara gaur egun elikadurak zerikusirik handia duela osasunarekin? Orain dela urte batzuk arte hain hedatuak ez zeuden dietak (beganoa, makrobiotikoa...) jarraitzea “postureoa”, itxurakeria da bakarrik edo ingurumenarekin sinbiosia bilatzen ari gara?

Asuntoa da nahastu egiten gaituela hainbeste informazio izateak. Medikuek gauza bat esaten du, fisioak batzuetan beste bat, farmazietan horrelako gero eta produktu gehiago saltzen ari dira... Zer egin? Hor dago gaia. Informazio larregi dago, baina iturriak fidagarriak dira? Dena sinistu behar dugu?

Gure aholkua zera da: elikadura-ohiturak guztiz aldatu baino lehenago informatu egin behar gara. Horretarako daude profesionalak, dietista-nutrizionistak hain zuzen ere.

Hala eta guztiz autodidakta izan nahi baduzu, etor zaitez liburutegira eta aukeratu ezazu ditugun liburuen eta materialen artean (300etik gora daude). Baina ez irakurri bakarrik korrante batekoak direnak, baizik eta zerbait bakoitzetik. Eta gero hartu erabakia. Baina, kontuz! Osasuna jokoan dago.



iñaki
zubillaga

Musika

Txomin Artola

bi disko gogoan


Neguan 70 urte beteko ditu Txomin Artolak. Momentuz Hondarribiko abeslariak oholtza gainean jarraitzen du, Gontzal Mendibil eta Urkoren konpainian. Folk etiketa erabili du beti, bere gaztaroan rock-taldeetan parte hartu arren. Bere etxean musika jaraitzen zuen eta mugan bizitzeak garaiko rocka entzutea (Bob Dylan, Elvis Presley, Beatles,...) errazten zion. Ez Dok Amairu taldeko emanaldia entzun zuenean, 1967an, euskaraz kantatuko zuela erabaki zuen.

Bere diskografiatik bi disko azpimarratu nahi ditut: “Belar Hostoak” (1978) eta “Ttakun ttakun” (1979). Haizea folk taldeko esperientziatik aspertuta irten zenean, Artolak beste etapa bat hasi zuen: rock, blues,... eta beste hainbat musika mota probatzeko.

Walt Withman Estatu Batuetako poetaren obra ezagunena euskeratu zuen, “Belar Hostoak”, hitz samur eta naturalistekin.

Musikari dagokionez, Errobiko kide batzuk parte hartu zuten lanean: Mixel Ducau (guitarra), Jean Phocas (baxua), Beñat Amorena (bateria) eta Robert Suhas (piano eta organoa). Nabaria da euren ekarpena oinarri musikalaren sendotasunean. Hurrengo diskoan beste proposamen ezberdina egiten du Artolak. “Ttakun ttakun” konplexuagoa eta barnerakoiagoa da. Gotzon Aleman poeta donostiarraren hitzak musikatu zituen Artolak, oso hitz pertsonalak. Musika aldetik intimismoa, erritmo lasaia eta produkzio sinplea dira nagusi. Jose Angel Alonso (biolontxelo), Anje Duhalde (perkusionak) eta Andoni Aleman eta Miren Maite Beldarrain txalapartarekin dihardute bertan.

Gero bost urte eman zituen diskorik atera gabe. Hurrengo bi diskoetan blues, jazz eta antzeko musika ekarri zigun. 90. hamarkadan Amaia Zubiriarekin aurrez osatutako bikotea berreskuratu zuen eta hiru disko sinatu zituen herri abestiekin. Gaur nabarmen ditudan diskoekin osatu zuen Txomin Artolak, nire ustez, bere etapa aberatsena. Emaizta horretan oso paper



garrantzitsua izan zuen Errobi taldeko egoera kreatiboak. Mixel Ducau eta Anje Duhalde ospetsuek, bi ikuspegi ezberdin erakutsiz, 1979an euskal musikako disko onenatariko bat sortu zuten. Baina istoria hori beste egun baterako lagako dugu.

Iker Narbaiza (Energia Berriztagarrien Graduko ikaslea)

“Energia berriztagarriak ezinbestekoak ikusten ditut etorkizunera begira”

Iker Narbaiza 20 urteko eibartarra Energia Berriztagarrien Graduko ikaslea da Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak Eibarko Unibertsitate Laboralean daukan egoitzan. Ingeniaritza hau nahiko berria da, eta estatu mailan oraingoz Eibarren besterik ez dago. Gizarteak ingurumenarekiko duen gero eta sentsibilizazio handiagoa eta energia-eskaera gero eta handiagoa uztartzeko erronkari erantzute aldera sortu zuen gradu hau EHUK.

– **Aurten Energia Berriztagarrien hirugarren ikasturtea egingo duzu. Nola joan da orain arte?**

Ezin dut ezer txarririk esan! Oso giro ona dago irakasle eta ikasleen artean. Nik etxe ondoan daukat, Amañakoa naiz-eta, baina erresidentzian bizi direnak ere oso giro ona daukate esan beharra dago. Karrera hau Espainian bakarra da, hortaz leku askotatik etorritako ikasleak daude: Bilbo, Donostia, Madril, Kanarietakoak... laz Cadizen bizi zen brasildar bat zegoen nire gelan, pentsa! Oso ondo konpontzen naiz denekin eta eurerekin parrandak egiteaz gain, kirola egiteko ere elkartzten gara. Gainera, jende larregi ez gaudenez, maila gutzietakoekin izaten dugu harremana.

– **Zer ikasten duzue?**

Lehenengo urtean industria ingeniartzaren oinarriko irakasgai komunak ikasten dira. Bigarren urtean energia berriztagarrien munduan sartzen hasten gara, bioenergia ikasten da, esate baterako, eta hirugarrenean guztiz murgiltzen gara energia berriztagarrien munduan: energia eolikoa, hidraulikoa, energia geotermikoa eta eguzki-energia..... 4 urtetako gradua da, eta gero masterra egin dezakezu. Hurrengo urtean Erasmus bitartez kanpora joateko aukera izango dugu.

– **Zergatik dira hain garrantzitsuak energia berriztagarriak?**

Energia berriztagarriak iturri naturaletatik sortzen diren energia motak dira, eta agortezinak dira. Mundu berdearekin, ekologiarekin lotzen dira energia berriztagarriak. Hori egia da, baina nik aurreztearekin ere lotuko nuke. Energia berriztagarriak garatuko bagenu eta horiekin bizitzea lortuko bagenu, beste herrialdeetako petrolioia eta beste hainbat gauza ez genituzke behar izango, eta horrela daukagun dependentsia ekonomikoa eta horren ondorioak gaudituko genituzke. Etorkizunera begira energia alternatibo horiek ondo garatzea eta ondo erabiltzea ezinbestekoa ikusten dut. Formakuntza eta ikerketan inbertitzea eta lan egitea garrantzitsua da. Mundu berria da eta gauza asko daude oraindik egiteko.

– **Kirolari sutsua zara baina gehienbat pilotan ibili zara urte askotan. Jarraitzen duzu pilota munduan?**

Bai, jarraitzen dut entrenatzen eta baita partiduak jokatzen ere. Eibarraren seniorretan jende gutxi gaude, baina esan beharra dago aurten haur askok eman dutela izena, eta hau benetan pozgarria da.



NAFARROA OINEZ

bikin bat in

Nafarroa Oinez 2017

Lesaka

urriaren 15ean

AUTOBUS



9€

IRTEERA

09:00etan Ego-Gainetik

ZERBITZUA

BUELTA

19:00etan Lesakatik

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte



osasun gida

Dentistak

arat
Hortz Klinika

943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ginekologia

Mª Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57
94 444 95 34

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Logopedak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ANTI)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologí Kliniká

Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Psikoterapia

FUB PSIQUIATRIA PSICOTERAPIA ALFA EIBAR RPS: 32/17
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Tfnoa: 615 71 54 04 Ego Gain 18 - 1 A
fuzar1@yahoo.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA

Maidar Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORRETTAN

centro médico eibar

Maila igotzea eta saskibaloi-eskola sustatzea ditu helburu Katu-Kalek

Azken denboraldian puntu batengatik lortu ezin izan zuen probintziako 2. mailara igo nahi du oraingoan ere gure herriko saskibaloi taldeak. Katu Kalek hilaren 5ean hasi zituen entrenamenduak Unai Otxandiano eta Fernandezekin eta Mikel Lekunberri eta Jon Arriagaren bajekin; bestalde, min hartutako Andersonnek eta Alberto Horcajadak errekonstruzio lanekin jarraitzen dute, entrenamenduetara noiz itzuliko zain.

Eibarko Saskibaloi Eskola, bere aldetik, bi talde izango ditu: Alex Etxebarria eta Aitor Arakistainek zuzentzen duten 2006an eta 2007an jaiotako neska-mutilena eta Enrique Benitez eta Mikel Sanchezek zuzentzen duten 2008an eta 2009an jaiotakoena. Talde biek barixakuetan entrenatzen dute: nagusienek 18:15ean eta txikienek ordu bete



lehenago, 17:15ean. Kluba negoziatzen ari da Patronatoarekin eta Udalarekin bigarren entrenamendu saioa eskaintzeko gazteei, "ahal bada martitzenetan egitekoa".

Euskal Herriko hiru txirlo bola txapelketa hasiko da bihar Azkoitiko Floreagan



Jose Andres Urkia nagusitu zen Arrateko bolatokiaren tiraldian.

Ohikoa denez, lau jardunaldi izango du Euskal Herriko hiru txirlo bola joko txapelketaren 28. edizioak. Bihar Azkoitiko Floreagako bolatokiaren hasiko da eta urriaren 28an amaituko, Bolibarko Iru-zubietakoan. Tartean, urriaren 7an Markina-Xemeingo Barinagan jokatuko da bigarren tiraldia eta, behin urriko zubia igarota, hilabete horretako 21 ean Eibarko Asola Berrik hartuko du hirugarrena. Edozer gertatuta ere, Eibarko bolatokia izango da ordezkaria. Tiraldi guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira eta parte hartzaileek 5 euro ordainduko beharko dute.



Eibar Energia Hiria beste denboraldi baterako prest

Aurreko asteburuan Altsasun, Oñatin eta Zaldibian jokatutako hiru probekin amaitu zuen Eibar Energia Hiria taldeak txirindulari denboraldia. Taldekide askorentzat lehen esperientzia izan da maila horretan eta, iaz lehen jarraitzeko izandako arazoei aurre eginda, Eibarko Klub Deportiboko taldeak hurrengo denboraldian jarraituko duela ziurtatu du behintzat. Hemendik aurrera talde hori osatzeko lanetan murgilduko dira teknikoak.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 10. etapa egingo dute irailaren 30ean

Hilabete honetako etapak Karrantza eta Lanestosa lotuko ditu, El Mazo eta Peña del Moro igota

Azken oporren ondorengo Bizkaiko Biraren hurrengo etapa iraileko azken egunean, hilaren 30ean, egingo da. Hamargarren kapitulu horrek 15,3 kilometroko ibilbidea izango du; nahiko motza, beraz. Karrantzatik Lanestosaraino doan bide hori, bestalde, Bizkaia eta Kantabria arteko muga-mugatik abiatuko da eta, antolatzaileek diotenez, "mendi gandorretik goazela bi tontor zeharkatuko ditugu". El Mazo (823 metro) eta Peña del Moro (818) dira gain horiek eta ibilbidean guztira 1.100 metroko desnibela beteko dute. Zapatu horretan autobusa goizeko 07:30ean irtena da autobusen geltokitik.

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzenetan eta eguenetan (19:30-20:30).

TABERNA ITXITA EGON ARREN, BULEGOAK ZABALIK EGONGO DIRA



Aurreko etapa batean, Alen mendiko tontorrean.

Ipur Sagardotegia da foball-zaletu torneoaren lehen liderra

Bar Arkuperi 6-0 irabazita eskuratu du Ipur-ek lidergoa, Garajes Garcia iazko txapeldunaren eta Durangoren aurretik (aipatutako biek 5-1 irabazi zieten, hurrenez hurren, Feredu Solutions eta Reformas Hiru aurtengo talde berriei). Jardunaldiko beste lau partiduetan parekotasuna izan zen nagusi eta, Alkidebak 2-1 irabazi bazion Larragest Sporting-i, beste hirurak berdinketa-

rekin amaitu ziren. Goleatzaileei dagokienez, Ipur-eko Gaizka izan zen gehien asmatu zuena. lau golekin.

Bigarren jardunaldiak honako neurketak izango ditu: bihar, Feredu-Txoko eta Azkena-Larragest (09:00etan), Alkideba-Areto (10:30) eta Garajes-Tankemans (12:00); eta etzi, Durango-Ipur (09:00), Esmorga-Slow (10:30) eta Hiru-Arkupe (12:00).



Cuevas nagusi Valladolideko Peñafiel herriko maratoi erdian ere

Holandako 50 kilometroek, antza, ez zituzten gehiegi nekarazi Asier Cuevasen hankak eta astebete barruan bigarren garaipena lortu du Eibarko atletak. Oraingoan Valladolideko Peñafiel herriko Ribera Run Race proba irabazi du Cuevas-ek eta, 21 kilometro horiek egiteko, ordubete eta 13 minutu behar izan ditu, Juan Jose Buena bigarren sailkatuari minututik gora aterata.



Eibar erdiko kaleek bizitasun berezia izan zuten domeka goizean. Maialen Belaustegi

Domeka goizean giro bikainean jardun zuen Mugikortasun Europako Asteko egitarauaren barruan Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Bizikleta Egunak. Goizeko lehen orduekin 50 bat zikloturista eta BTT txirrindulari bildu ziren Untzagan egitarauan zeuden bi probei ekiteko: batzuk kostaldera jo zuten moduan, besteak Eibar inguratzen duten mendiak zeharkatzeko. 11:00ak inguruan, bestalde, txikienen ordua izan

Bizikleta Egun dotorea egin zuten eguraldi bikaina aprobetxatuta

zen eta, izena eman ondoren, T. Etxebarria, Zuloagarren eta Calbeton kaleak lotzen zituen ibilbidea bete zuten, batzuk gehiagotan beste batzuk baino. Hori amaituta, ginkana antolatu zen Untzagan bertan, txirrindularizaleen abilezien erakusgarri. Eta, behin eguerdira helduta, helduenek euren ibilbideak amaituta, aukera izan zuten prestatutako piskolabisaz gozatzeko, txiki-ek hainbat opari jasotzen zituzten bitartean.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO funeuskadi

2017/18 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula zabalik



EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.eus

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: **943 201 379**

Udalaren laguntzaz
BEKA SISTEMA

Gisasolatarrak berriro ere nagusi izan ziren Diana ehiza elkarteko txapelketan

Aurreko zapatuan Zambranako (Araba) jokatutako elkartearen txapelketan senior mailako 15 ehiztarik eta hiru beteranok hartu zuten parte. Gisasola aita-emeek indartsu ekin diote denboraldiari eta Inigok irabazi zuen senior mailako lehia, 12 eper eta galeper batekin, eta alde handia kendu zien seniorretan bere atzetik sailkatu ziren

Juan Azkarate eta Valentin Ostiategiri. Berteranoetan Jose Luis Gisasolak irabazi zuen barne lehiaketa, bost eperrekin. Etzi aipatutako Zambranako toki berak hartuko du Debabarreneko txapelketa eta Diana ordezkatzan han izango dira, txapelaren bila, eta Gisasolatarrakin batera, Enrike Isasi, Valentin Ostiategi eta Aimar Gonzalez.



Jolasteko tarte alai
izan zuten Arraten.
Maialen Belaustegi

Somos Eibar-ek garaile hasi zuen Liga

Eibar Eskubaloiko talde nagusiak 25-19 irabazi zion Alcorta Elgoibarri aurreko barixakuan Ipurua kiroldegian jokatutako Ligako lehen jardunaldiaren partiduan. Partidua aprobeztatuta, zuzendaritza berriak aukera baliatu zuen aurrekoa omentzeko egindako lan guztiaga-

tik eta, aldi berean, Miguel de los Toyos alkateak saria eman zion selekzioarekin munduko azpitxapel-dun izan den Mikel Zabalari. Bestalde, klubak deituta Arraten bildu ziren maila guztietako jokalariek eta euren gurasoek egun bikaina pasatu zuten "kluba handi eginez".

Torre Cerredo gaina hurrengorako laga zuten


Aurreko asteburuan Picos de Europa egindako irteeran 18 lagun elkartu ziren, baina eguraldi egoerak horrela aginduta baztertu egin behar izan zuten Torre Cederrora heltzearena. "Mendiak



erakusten zuen egoerak ez zigun horrelakorik gomendatzen, elur kapa hotza zegoelako eta, ondorioz, izotza ipar aurpegietan", hara joandako mendizaleek esan digutenez. Hala eta guztiz, bikain pasatzeko aukera izan zuten "mendiko aterpeko saltsan" beste mendizale batzuekin. Torre Cerredo: horra hor beste baterako erronka.

Eibar FT-k Celta hartuko du domekan

Martitzenean Bartzelonako Camp Nou-n jokatutako partidua urte askoan Eibarrek jaso gabeko egurrarekin itzultzea ekarri zuen. Han emandako irudia ez zen hain kaskarra izan, baina Messiren lau golek eta eibartarrek ate aurrean hain fin ez egoteak ekarri zuten 6-1ekoa. Astea ixteko eta emaitza hori lehenbailehen ahazteko aukera izango dute Mendilibarren mutilek etzi arratsaldean, 18:30ean, Ipuruan Vigoko Celta bisitari izango dela. Galiziarrek ez dute liga ondo hasi eta une honetan eibartarren atzetik daude sailkapenean. CD Vitoria filialak, bestalde, berdindu egin zuen bina azken jardunaldian Olanarben, Getxoko Arenasekin. Eta Erregional Preferentean jokatzen duen Eibar Urkok 2-1 galdu zuen Bergaran ligako lehen jardunaldian.



**JUAN LUIS
Ulazia Landa**
6. urteurrena (2011-IX-25)

"Gure artean ez bazaude ere,
GUREKIN zaitugu BETI"

ETXEKOAK



Proiektu bereziarekin dator kultura arloko ikasturte berria Eibarren. Udalak Gaztelupeko Hotsaren proposamena bere gain hartu du eta, bihar hasita, hilero musika kontzertu berezia izango dugu "rock and rolla eta musika beltzaren inguruan". Aipatutako kontzertu gehienak ordu eta egun ez ohikoetan eskaintzeko asmoa dago: "Domeketan izango zen, 19:00etan". Eta aukeratutako tokia Portaleako aretoa, "gertuko kontzertuen bila".

Bihar Coliseoan hasiko da Portalean jarraipena izango duen MUSIKA ZIKLOA

Momentuz gabonak arte dute lotuta proiektua. Eta egunak aldatuz joan dira taldeen agendarekin batera: horrela, urrian eta azaroan domeka errespetatu badute ere, abenduan Julian Maeso Bandak barixakuan jardungo du (hilaren 15ean). Urriaren 22an The Godfathers izango da Portaleko eszenategian eta azaroaren 19an Sugar Daddy & The Cereal Killers. Aurretik, baina, Coliseoak bihar (20:30ean hasita) proiektua martxan jarriko duen The Buttshakers kontzertua har-

tuko du. Gaztelupeko Hotsak-eko Ubane Uzinek dioenez, "dena ondo joanda, 2018an jarraitzeko asmoa dugu".

Proiektuak badu aurrekaririk: "Badira hilabete batzuk, apirilean zehazki, Jimmy Barnatan & The Cocooners-en kontzertua antolatu genuela Portalean. Horrelakoetarako ezohiko tokia izan arren, jende kopuru polita izan genuen eta giroa ere jatorra izan zen", diote Gaztelupekoek. "Famosoak" izan gabe, kalitatea ziurtatzen duten taldeen atzetik egin du bere ibilbidea Soraluzen 1990eko hamarkadan sortutako euskal diskoetxeak, oso espektro zabaleko musika garaikidearen estiloak biltzen eta euskarazko eta beste hizkuntza batzuetako lanak argitaratuz. Oraingoan ere bide beretik jo dute, "Godfathers-en kasuan ezagunagoak badira ere, musika egiten 30 urte bete dituztelako eta aurretik Euskal Herrian ibilitakoak direlako". Dena dela, talde guztiak Europan zehar jotzen dabiltzanak dira eta baita eszenategi desberdinetan jotzen ohituta daudenak. Horrela, "Coliseoan jotzea zailago izango luketen talde asko ekarri dezakegu Portaleara", diote antolatzaileek, "zaltetuek gozatzeko delicatessen saioak eskaintzeko gogo biziz".

The Buttshakers bihar 20:30ean

The Buttshakers talde frantsesak joko du bihar Coliseoan, raw soul, rythm & blues eta funk-ean murgiltzen den seiko-



tea izango dugu taula gainean, "haize sekzioarekin". Kritikariek diotenez, "rockaren marmarra aski entzungarri dute eta etenik gabeko groovea kode genetikoan txertatua". Eta adituen esanetan, taldearen emanaldiak "su eta izerdiko dantzodromoa bihurtzen dira. Ciara Thompson riot-girl liluragarri eta karismadunaren ahots eta indar xarmagarriak eroanda". Bestalde, Sky and the Family Stone, Charles Bradley, Sharon Jones, Etta James, Marvin Gaye eta Motown abeslari eta taldeen eragina ere badu The Buttshakersek. Kontzerturako sarrerak 10 eurotan daude salgai, Coliseoaren Laguna txartelarekin 7 eurotan.

Beste hiru kontzertu lotuta

Hemendik hilabete batera, hilaren 22an, The Godfathers britainiarrak etorriko dira Portaleara, 1985ean Peter eta Chris Coyne anaiek sortutako taldea. Musika alternatiboaren barnean kokatzen dute euren burua eta, rock-a deskargatzean, rythm & blues eta punk-aren eragina nabaritzen zaie. Azaroan Sugar Daddy & the Cereal Killers taldea osatzen duten zazpi italiarrak izango dira gure artean, "beste inor baino eleganteagoak eszenategian, 40. hamarkadako Ipar Ameriketako sasoiara eramango gaituztenak". Eta abendurako Julian Maeso konpositore eta multinstrumentistaren banda dago iragarrita. Ere mu guztietan mugitzen dakien arren, "badu black music-erako joera". Ahaztu gabe askorentzat Toledokoa munduko onena dela Hammond baten teklak jotzerako orduan.



The Godfathers



Sugar Daddy



Julian Maeso



The Buttshakers



Euskal Herriko txistulari guztiak bilduko dira Arraten irailaren 30ean

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak 90 urte bete ditu. 1927an sortu zen Arraten, txistularien patrioiaren babespean egin zen aurreneko biltzar hartan. Datorren irailaren 30ean, zapatua, goian daukazuen argazki zahar hori errepikatuko dute Arrateko zelaian, elkartearen 90. urteurrena ospatzeko. Festa eguna izango da eta Euskal Herri osotik etorritako txistulariek hartuko dute parte, baita Eibarko Usartza txistulari taldeko kideek ere. Ospakizun berezi horretara eibatar guztiak daude gonbidatuta.

Datorren astean, irailaren 30ean Euskal Herri osoko txistulariak elkartuko dira Eibarren, ezohiko batzarra egin eta 1927an Arraten sortutako elkarte horren estatutuak berritzeko. Egun osoko festa izango da, bi kontzertuk eta erromeriak lagunduta.

Txistularien artean ohikoa den moduan, diana joz hasiko dute eguna. Euskal Herri osoko txistulariak daude deituta, goi-

zako 09:00etan Untzaga plazan elkartu eta kalejiran abiatzeko. Ondoren, 10:00etan, ezohiko batzar orokorra egingo dute Coliseo antzokian, elkartearen estatutuak berritzeko, eta bilera bukatuta, 11:00etan, Arratera igoko dira.

Arraten hamaiketako egin ondoren, 12:15ean **meza** izango da, txistularien patrioiaren santutegian, eta hura bukatuta, 13:15ean txistularien **esku dantza** egingo

“Eguerdian txistularien Esku Dantza egingo dute zelaian, eta ondoren kontzertua emango dute han bildutako guztiak. Arratsaldean umorezko kontzertua emango du Donostiako Udalaren txistulari taldeak. Ondoren, erromeria izango da.”



Euskal Herriko txistularien elkartekoak Arrateko amabirjina euren patrioiaren aurrean egindako argazkian, 75. urteurrena ospatzeko elkartu ziren egunean.

da zelaian. Segidan, 13:30ean, **kontzertua** emango dute bertan bildutako txistulari guztiak, eta 14:30ean **bazkaltzeko** elkartuko dira Kantabria jatetxean.

Eguna biribiltzeko, arratsaldeko 18:00etan **umorezko kontzertua** emango du Arrateko elizan Donostiako udalaren txistulari taldeak, eta 18:45etik aurrera erromeria izango da.

Ospakizun berezi honetan, herritar guztiak gonbidatu ditu elkarteak, txistulariekin bat egin eta jai-girora biltzeko.

Gazteak bertsolaritzan zaletzeko asmoz, Hankamotxak bertso eskolakoak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartekoekin elkarlanean, bertsolaritzaren inguruko motibazio saioak ematen ibili dira DBHko ikastetxeetan. Izan ere, badira urte batzuk bertso eskola gure herrian lehen pausoak ematen hasi zela eta, denbora honetan, hainbat gazte erakarri ditu, gaur egun finkatuta dagoen taldea lortu arte. Hala ere, asmoa gazte berriak proiektura gehitzea da, eta ildo horretan eskaini dituzte saioak.



Aurreko astean DBHko ikasleekin berbetan ibili ziren Hankamotxak eskolakoak.

Gazteak Bertso Eskolara erakarri nahian

Aurreko astean izan ziren hitzaldiak: martitzenean Jokin Bergara eta Manu Goigana La Salle ikastetxean egon ziren, 1. DBHko ikasleentzat saio bi ematen. Eguen goizean, berriz, Itziokoen txanda izan zen eta hor ere saio bi eskaini zituzten Jokin Bergara eta Eneritz Artetxe, 2. DBHko ikasleentzat. Eta barixaku goizean Mogel-Isasira joan ziren Endika Ruiz, Jokin Bergara, German Urteaga eta Manu Goigana, 1., 2. eta 3. DBHko ikasleentzat sei saio eskaintzera. Eta azken saioa ikastetxetik kanpora, Indianokua gaztelekuan egin zuten. Horietan ibili den Manu Goiganak azaldu digunez, *“orain dela hiruzpalau urte ere horrelako ahalegina egin genuen, baina orduan ez ginen joan ikastetxe guztietara eta, horregatik, oraingoan Udaleko euskera teknikariarekin harremanetan ipini eta DBHko ikasle gehienengana ailegatu gara. Klasez klase joan gara, hitzaldia eman eta, joko modukoekin, gazteei bertsolaritzaz berba egitera”*.

Saioak eman eta gero, gaia gazteentzat erakargarria dela pentsatzen du, *“baina*

puntu bateraino. Izan ere, saioetan arreta ipini dute eta gustora egon dira, baina hortik eskolan izena ematera animatzeraino tarte handia dago, ikusiko dugu zenbat datozen eskolara”.

Gaur egun 3. eta 4. DBH ikasten ari diren dozena erdi gazterekin ari dira lanean: *“Klaseak urrian hasiko ditugu, eguna eta ordua ikasleekin batera adostu dugu. Jende berria etorri gero, gu prest gaude irakasteko eta euren ordutegietara moldatuta taldea osatzeko”*. Izan ere, gazteek gero eta gauza gehiago ikasten dute klase ordutegitik kanpora, *“eta bertsolaritza ez da izaten lehentasuna. Ingelesa, matematikak eta beste batzuk aurretik joaten dira, nahiz eta bertsolaritzak komunikaziorako gaitasuna eta beste batzuk hobetzeko lagungarria izan daitekeen”*.

Bertso Eskolen Eguna, 30ean Seguran

Eibarren ez ezik, Euskal Herriko herri gehienetan dago Bertso Eskolen bat martxan eta euren eguna ere badute. Aurten Seguran ospatuko da Bertso Eskolen

Eguna irailaren 30ean. Urtero legez, egun osoko egitaraua prestatu dute. Elorripe herriko tabernan emango zaio hasiera festari, 12:30ean. 14:00etan bazkaria egingo da plazan, Iparra Hegoaren eskutik (txartelak 15 eurotan daude salgai, domekara arte, www.bertsosarrerak.eus atarian). Bazkalostean, Bertsozale bertso eskolen arteko desafioen hirugarren edizioa aurkeztuko da parte-hartzaileekin. 2015ean antolatu zuen lehen aldiz ekimena Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak eta harrezkero hainbat bertso eskolek hartu izan dute parte: guztira, urtero 30 bat saio egin izan dira bertso eskolen artean, euren arteko harremana sendotuz. Jarraian, Bertsolari Txapelketa Nagusiko final laurdeneko saioa hasiko da eta, hura amaitzean, Bertso Eskolen Eguna jarraipena izango du: 20:00etan, afari mokadua eskainiko du Elorripe herriko tabernak eta Julene Otaegi eta Jone Uria trikitariek girotuko dute otordua. Eta 23:00tan, eMePebo5t taldearen kontzertuak amaituko du eguna.



Maite Narbaiza Azkue

Irailaren 18n hil zen, 71 urterekin

***“Ugari izan ditut lagunak bidean,
beraien musu bana daroiat soinean”***





ASIER IBAIBARRIAGA
(bertso-epailea)

– Urtean zehar zelako entrenamendua izaten duzue?

Epaileen Bizkaiko lehendakari izendatu ninduten orain dela bost urte eta ordutik epai-mahaitik kanpo dago nire zeregina. Batez ere, herriz-herriz jarduten dut epaile berriak sortzeko eta trebatzeko lanean, puntuazioak-eta aztertuz.

– Bertso-jaialdi askotara joaten zara?

Lehen gehiagotan egoten nintzen. Azkenaldian urtero 40 saioen bueltan ibiliko naiz. Presentzialki jarraitu baino, irratitik eta internetetik jarraitzen ditut asko.

– Azkenaldian zalegoa aldatu dela esango zenuke? Gaztetu egin delakoan zaude?

Zaletua aldatu dela argi dago. Egia esan, horretarako erreminta gehiago ere badago. Kritikari eta adituen multzoa ere

“BEC lekurik aproposena da bertso txapelketaren finalerako”

Asier Ibaibarriaga ermuarrak bihar Baigorriin hasiko den Bertsolari Txapelketa Nagusiko epaile lanetan jardungo du abendura arte. Hogeitazero izango dira guztira epaile talde horretan. Aurretik gai-jartzaile jardun zuen, 2001. eta 2005. edizioetako txapelketetan, eta 2009. eta 2013. urteetan egindako bidetik, aurten bere hirugarren aldia izango da epaile moduan. Saiotako epaileak trebatzeko lanetan dihardu batez ere, zeregin horretan Martin Aramendi lagun duela, aztertze eta zuzentze etengabeko prozesuan.

handitu egin da eta gaur egun bertsolaritzaren inguruko mundu hori hobeto ulertzen da. Gazteak gerturatzeaz gain, bertsolaritzak kolore anitzagoa hartu du eta belaunaldien arteko aldaketa ere eman da.

– Bertsoak puntuatzerako orduan, aldaketak izan dira azkenaldian?

Epaileak behin puntuazioa emanda, ez du zuzentzeko aukerarik izaten. Epaileen iritzia, bestalde, desberdinak izaten dira eta, horrez gain, momentuko inpresioak bideratutakoak askotan... Horregatik dira hain beharrezko entrenamenduak eta, erabakia subjektiboa izango bada ere, beti dago aukera elkarrengandik ikasteko eta jazten joateko.

– Barakaldoko BEC-ari finalerako toki aproposena deritzozu?

Beste areto batzuk ere aztertu dira, baina une honetan ez dago horrelako erraztasunik ematen duenik eta hainbeste jenderentzat lekurik eskaintzen duenik. Oso ondo komunikatuta dago, metroa bertaraino, ingurune aproposa, audiorako garantia handia eskaintzen du... Abantaila asko ditu. Betirako izango den? Hori ezin dugu esan.

– Txapelketak zer dira bertsogintzan?

Egunerokoaren erakusle, egiten denaren islada den neurrian. Leku askotara iristeko aukera eskaintzeaz aparte, elkartearentzat sarrera bat ere bada: gure proiektuak aurrera egiteko, plaza berritzeko... Jendea gosez egoten da halakoetan, bestelako entzulego bati zabaltzen dizkiogu ateak... beharrezko mugimendua eragiten du.

Clown ikastaroa Nerea Ariznabarretarekin

Nerea Ariznabarreta eibartarrak helduentzako clown ikastaroa emango du urritik ekainera bitartean Abadiñoko Errota Kultur Etxean. Klaseak eguen arratsaldetan izango dira, 18:15etik 20:15era. Irakasleak 18 urte baino gehiago daramatza antzerki, musika eta dantzan formatzen. LISPA (London International School of Performing Arts) antzerki eskola amaitu berri du eta aurretik Gasteizko TAE (Taller de Artes Escénicas) eta Ibizan, “Bonts International Clown School” eskolan ikasia da ere. Ikastaroari buruzko informazio gehiago eskatzeko zein izena emateko 645732391 telefono zenbakira deitu edo nere.ariznabarreta@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



Periko Iriondok Nepalera egindako bidaiaren irudiak erakutsiko ditu

Nepalera aurtengo oporraldian egindako irteera aprobetxatuz, hiru emandaldi eskaintzeko asmoa du gure herriko mendi ibiltariak. Lehenengoa datorren asteko eguenean (hilaren 28an) emango du, Klub Deportiboan betiko moduan, arratsaldeko 19:30ean hasita. Hor Nepalen osatutako Mustang-en trekking-a erakutsiko du: “Katmandu ingurukoa da, eta Jomsonetik Syangbocheraino doan ibilaldiaren irudiak jasoko ditu”. 12 egun egin zituen Nepal Iriondok abuztuan eta tarte ondo aprobetxatu zuen 4.100 metroko ton-tor batzuk egiteko.



Eibarren Akebai batzarra eratu da

Eguazten arratsaldean udaletzeko patioan egin den bileran Eibarren Akebai batzarra eratuta geratu da. Plataformako kideek azaldu dutenez, Guinnessa lortzeko ekitaldia prestatzeko lanean ibili den boluntario taldeak behin-behineko batzarra osatzen zuen, baina aurrerantzean lanean jarraitzeko behin-betiko batzarra osatu behar zen eta horretarako bilera izan zen eguaztenekoa. Horrekin batera esparru ezberdinetara lotutako mahaiak eratu ziren eta gidaritzita lana egingo duen ekipoa osatuko duten kideak ere finkatu zituzten.



*Ermuko
Versionarios
taldeak musika
emanaldia
eskainiko du.*

Ametsa tabernaren urteurren jaia

Ametsa tabernak 3. urteurrena ospatuko du irailaren 30ean eta, horren harira, eguerditik hasi eta gauera bitartean iraungo duen egitaraua prestatu dute: kontzertuak, Lambretta motorren erakusketa, 80. hamarkadako musikari eskainitako emanaldia Ermuko Versionarios taldearen eskutik eta, jaia agurtzeko, Juanma Cano eta Santi DJ-k girotutako musika saioa. Gainera, Gautena autismo elkarteak pintxoak salduko ditu, elkartearentzat dirua batzeko. Eta, jai eguna biribiltzeko, goizeko txikiteoa girotzeko Maurok koktelak prestatuko ditu eta gauean, 23:00etatik aurrera Schweppes etxeko aditu bat ibiliko da gin-tonicak ateratzen.

Voces de Alfoz abesbatzaren emanaldia

Kantabriako Etxekoan eskutik, Bien Aparecida ama birjinaren jaiak ospatzeko egitaraua agurtuko dute asteburu honetan: bihar 20:00etan Loredoko Voces de Alfoz abesbatzak emanaldia eskainiko du San Pio X.a elizan eta, ondoren, 21:00etan piskolabisa egongo da Ipuruako bolatokian.



Kilometroak-erako autobusak Untzagatik irtengo dira

Domekan Oñatira, Kilometroak jaira joateko J. A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarteak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako autobusak, azken orduan egin duten aldaketaren eraginez Untzagako geltokitik irtengo dira (eta ez Ego-Gainetik, hasieran hala aurreikusita zegoen arren). Hortik kanpora ez dago bestelako aldaketarik: autobusak goizeko 09:30ean irtengo dira eta buelta, berriz, 19:00etan izango da.

1967. urtean jaiotakoek bazkaria urriaren 7an

Urriaren 7an izango da 1967an jaiotakoek bazkaria eta, hori antolatzeko, "Asociación Recreativa EIBAR 1967" elkarteak sortu dute. Kide egiteko datuak (izen-abizenak, helbidea, jaiotze-data, kontakturako telefonoa eta emaila) "EIBAR 1967" Facebook kontuan eman daitezke edo, bestela, 1967eibar@gmail.com helbidera bidali. Bazkarira joateko 90 euro sartu behar dira Sabadell bankuko ES03 0081 4362 6700 0117 1720 kontu zenbakian.



www.kolorlan.com

667 54 89 16


KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

SORALUZEN hilaren 30ean eskainiko duen kontzerturako

Leboral Kutxak emandako
2 SARRERA ZOKETATUKO DUGU

irailaren 27rako BEHEKO DATUAK BETE eta ...eta kitto!-ra bidali (Urkizu, 11)

IZEN-ABIZENAK

TELEFONOA



Gazterobotika hartuko du Astelenak bihar goizean

Astelehen goizean aurkeztu zuten bihar goizean, 10:00-etatik 14:00etara Astelena frontoian egingo den Euskadiko lehen Hezkuntza Robotika Txapelketa. Udaleko Garapen Ekonomikorako Sailak sustatu duen ekitaldiak hainbat erakunderen laguntza jaso du, besteak beste SPRI, Gipuzkoako Foru Aldundia, Laboral Kutxa, Obra Social "La Caixa", Kutxa Fundazioa, SD Eibar Fundazioa eta EPC enpresarena. Horieta hainbat ordezkari hartu zuen parte aurkezpen ekitaldian. Ekimena robotika arloan espezialista den Doplay enpresak antolatu du eta Debegesa arduratu da koordina-

zioarekin. Robotikaren eta teknologia berrien inguruko topaketa izan nahi du txapelketan 100 bat lagunek hartuko dute parte, 37 taldetan banatuta. Gazteek euren buru-argitasuna eta abilezia neurtuko dituzte hainbat probatan, euren diseinatu, programatu eta eraiki dituzten roboten bitartez. Horrekin batera, topaketak ordenagailuen gune bat ere izango du eta nahi duten guztiek bideojokoen mundura murgiltzeko aukera izango dute. Gainera, erakustaldiak egiteko gune bat prestatuko da: Eibarko Maker taldeak objektuak eskaneatuko ditu Kinect batekin ondoren 3Dn inprimatzeko;



Biharko topaketa babesten duten erakundeetako hainbat ordezkari asteleheneko aurkezpenean batu ziren Untzagan.

SPC Makeblock-eko kideek tailerrak egingo dituzte eta makeblock robot desberdinak eta airoblock droneak erakutsiko dituzte; Doplay enpresak roboten arteko foball partida antolatuko du, baita beste zenbait erronka ere taldeetan lehiatzeko; eta, Iruña Tecnolo-

gias enpresak oztopoak saihestuz lurretik merkantzia mugitzeko gaitasuna duen robot berezi bat ekarriko du. Hitzordu teknologiko honi buruzko informazioa www.gazterobotika.eus webgunean eskuratu daiteke. Sarrera irekia eta doakoa izango da.

Amagandiko Edoskitzearen II. Argazki Lehiaketa martxan

Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) Edoskitzearen II. Argazki Lehiaketa antolatu du, iaz lehen deialdiak izan zuen harrera onak animatuta. Lehiaketara argazkiak aurkezteko epea azaroaren 15era arte egongo da zabalik eta parte hartzeko bete beharreko baldintzak eta bestelako informazioa Osakidetzaen orrialdean dago eskuragarri, baita Facebook-en ere. Lehiaketara aurkezten diren argazkiak originalak eta berriak izan beharko dira eta bakoitzak hiru lan aurkez ditzake gehienez. Zuri-beltzean zein koloretan izan daitezke eta emailez, BPSO.OSIDEBABARRENA@osakidetza.eus helbidera bidali beharko dira, azaroaren 15era arte.



Musika Bandaren kontzertua domeka eguerdian

Ikasturteko lehen kontzertua emango du domekan Eibarko Cielito Musika Bandak, Coliseo antzokian, 12:30ean. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen saioan "Ateneo Musical" (pasodoblea, Mariano Puig), "Los Cuentos de Hoffmann" (barcarola, J. Offenbach), "El Caserio" (fantasia, Jesus Guridi), "The Beatles in Concert" (aukeraketa, Lennon eta Mc Cartney) eta "Ross Roy" (bandarako obertura, Jacob de Haan) eskainiko dituzte. Kontzertuaren aurretik, 11:15ean kalejira ibiliko dira.

● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

LORADENDA

– Lora eta landare natural eta lehorrak

– Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29



Benito Lertxundi SORALUZEN 30ean


Benito Lertxundi Orioko kantariak 50 urteko ibilbidea ospatzeko kontzertua eskainiko du Soraluzeko Arane Kiroldegian hilabete honetako azken egunean, zapatuan, gaueko 22:00etan hasita. Sarrerak bertako Udaletxean eta Kiroldegian daude salgai; Eibarren eskuratzekotan, Txoko tabernan eros ditzakezue: aurrez erosit, 20 euro; txarteldegian 22. "Oroimenaren oraina" izeneko azken diskoko abestiez gain, bere kantu ezagunenek ere tokia izango dute kontzertuan



Baserritarren azoka bihar ELGETAN

Ekitaldiz josita dator aurten ere iraileko baserritarren azoka eguna. 10:30ean hasiko da herriko "ferixia"ren irekiera, Ekogunearen eskutik egingo den barazki eta burdin-lantze erakusketekin. 11:00etan XXI. Intxortara igoera egingo da eta, ondoren, Gaztetxoan Salbadorrera igoera egingo dute. Arratsaldean, 17:00etan, frontoiak hartuko duen binakako esku-pilota partiduan Naroa Iturain - Maite Ruiz de Larramendi eta Andrea Aldaregia - Olatz Ruiz de Larramendi aurrez aurrez izango dira. 18:30ean patata tortila lehiaketa izango da plazan, Elgetako Gaztetxeak antolatuta.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Jose Manuel Galvan Torres. 61 urte. 2017-IX-7.
- Emilia Nieto Meire. 91 urte. 2017-IX-12.
- Manolo Gallardo Romero. 57 urte. 2017-IX-14.
- Sabin Mujika Leturiondo. 69 urte. 2017-IX-14.
- Luis Jesus Ramos Aizpurua. 68 urte. 2017-IX-14.
- Artemio Martin Barbero. 79 urte. 2017-IX-14.
- Asier Muruamendiaraz Kortaberria. 50 urte. 2017-IX-17.
- Maite Narbaiza Azkue. 71 urte. 2017-IX-17.
- Ana Agirre Aranguren. 101 urte. 2017-IX-20.

jaiotakoak

- Deiane Marcos Acosta. 2017-IX-15.
- Irati Ituarte Anakabe. 2017-IX-16.
- Kepa Ibartutxi Ibañez. 2017-IX-18.

farmaziak

- Barixakua 22
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 25
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Martitzena 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 27
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguna 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 29
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2017 AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

4	8	5	3	6	1	7	9	2
2	3	7	9	8	4	1	6	5
9	1	6	5	2	7	8	3	4
5	7	8	4	1	3	9	2	6
3	4	1	2	9	6	5	7	8
6	2	9	7	5	8	4	1	3
7	5	4	6	3	9	2	8	1
1	9	3	8	4	2	6	5	7
8	6	2	1	7	5	3	4	9

		2		8	9	5		
5	9		6					
8			3	5				
4		9					6	
	5						2	
	6					8		9
				9	3			4
					4		9	7
		1	8	7		2		

Barixakua 22

BERBETAN JAIALDIA

17:30/19:00. Eskulanak eta puzgarriak. Untzagan.

KONTZENTRAZIOA

19:00. "Eibar Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat" kontzentrazioa, Eibarko EH Bilduk deituta. Untzagan.

LEGARREKO JAIK

19:30. Txosna irekiera eta umeentzat jolasak.

20:30. Tortilla txapelketa.

21:00. Auzoko gazteentzat afaria.

22:00. Zumba saioa.

23:00. Musika: "Lokaletik plazara". Legarren.

Zapatua 23

GAZTEROBOTIKA

10:00/14:00. Gazterobotika Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketa. Doan. Astelena frontoian.

LIBURU AZOKA

11:00/19:00. Eibar-Sahara elkartearen bigarren eskuko liburu azoka. Denak euro batean salgai. Untzagan.

LEGARREKO JAIK

11:30. Legarreko II. Kronoeskilara.

13:30. Pintxopoteoa, trikitilari eta buruhandiek.

14:30. Bazkaria, Biziminaren eskutik.

16:00. Bazkalosteko musika, DJ Arnorekin.

17:00. Antxo eta Pantxaren "Museoaren taupadak" umeendako ikuskizuna.

18:30. Txokolatada.

19:30. Kalejira, buruhandiek eta Mugi Panderoarekin.

20:00. Erromeria, Mugi Panderoarekin.

22:30. Kontzertua: Oso Basatis eta The Rockos. Legarren.

BIEN APARECIDA JAIK

20:00. Loredoko Voces de Alfoz abesbatzaren emanaldia. San Pio X elizan.

21:00. Piskolabisa. Ipuruko bolatokian.

MUSIKA

20:30. The Buttshakers taldearen kontzertua. Sarrera: 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokian.

Domeka 24

KILOMETROAK

09:30. Oñatira, Kilometroak jaira joateko autobusaren irteera. Untzagatik.

LIBURU AZOKA

11:00/19:00. Eibar-Sahara elkartearen bigarren eskuko liburu azoka. Denak euro batean salgai. Untzagan.

MUSIKA

12:30. Eibarko Cielito Bandaren kontzertua (11:15ean kalejira egingo dute). Coliseo antzokian.

Astelehena 25

JARDUNALDIAK

17:00. Ekonomia Feministaren inguruko jardunaldiak. Portalean (areto nagusian).

Martitzena 26

JARDUNALDIAK

17:00. Ekonomia Feministaren inguruko jardunaldiak. Portalean (areto nagusian).

BERBETAN AUZOETAN

17:30. Berbetan egitasmoa auzoetan ezagutzera emateko eskulanak eta txokolatada. Urkin (Cepa parean).

Eguaztena 27

BERBETAN AUZOETAN

17:30. Berbetan egitasmoa auzoetan ezagutzera emateko eskulanak eta txokolatada. Amañan (Legarreko frontoian).

Eguena 28

JARDUNALDIAK

17:00. Ekonomia Feministaren inguruko jardunaldiak. Portalean (areto nagusian).

AGINAGAKO JAIK

18:00. Kanpai iraulketa, San Miguel bezpera dela ospatzeko. Aginagan.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:30. Periko Iriondoren Nepalgo argazkiak. Klub Deportiboan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 22:30 (2 aretoan)

24an: 20:00

25ean: 20:30

"La niebla y la doncella"

Zuzendaria: Andres Koppel



(2 ARETOAN)

23an: 19:45

24an: 17:00, 20:00

25ean: 20:30

"Churchill"

Zuzendaria: Jonathan Teplitzky



(1 ARETOAN)

23an: 17:00, 19:45, 22:30

24an: 17:00, 20:00 (antzokian)

25ean: 20:30 (antzokian)

"Kingsman. El círculo de oro"

Zuzendaria: Matthew Vaughn



(ANTZOKIAN)

23an: 17:00 (2 aretoan)

24an: 17:00

"Tadeo Jones 2. El secreto"

Zuzendaria: Enrique Gato



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, LUKEN, atzo 6 urte bete zenuazuen-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, arreba Libe eta Jon eta Ander lehengusuen partez.



Zorionak, TELMO, hillaren 11n 9 urte bete zenuazuen-eta. Patxo potolua etxekuen eta, batez be, Markoren partez.



Zorionak, ODEI, hainbeste maite zaittugun guztion partez, atzo 7 urte bete zenuazuen-eta. Musu eta besarkada haundi bat.




Zorionak, AMETS!, haraiñegun 7 urte bete zenuazuen-eta! Musu erraldoi bat famelixaren eta, batez be, Helenen partez.



Zorionak, ARRATE, zure 7. urtebetetzian. Ondo pasa eguna, prexioxa, eta patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, DANEL!, eguaztenian zure eguna izan zalako. Patxo haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIA, abuztuaren 5ian 7 urte bete zenuazuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LUKE, gaur 3 urte betetzen dozuz-eta. Patxo erraldoi bat, polittori, etxeko eta lagunen partez!



Zorionak, LAIA, domekan 10 urte beteko dozuz-eta. Primeran pasatuko dogu zaldi gaiñian!



Zorionak, JUNE, martitzenian 10 urte bete zenuazuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OIER Salas Garaiburu, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Amama eta etxekuen partez.



Zorionak, EKI, zure 3. urtebetetzian, Itxaso, amatxo eta aitaoren partez. Asko maite zaittugu, pottoko!



Ongi etorri, OSKITZ, hillaren 5ian jaixo ziñan-eta. Aitxitxa, amama eta tia Lauriren partez.



Zorionak, JONE, atzo 6 urte bete zenuazuen-eta!!! Musu pillotia etxekuen partez!!!



Zorionak, tio MIKEL! Laztan haundi bat Andres, Mikel, Miren eta Liberen partez.



Zorionak, MALEN, etxeko printzesa!, haraiñegun 2 urte egin zenuazuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AMA, bixar urtiak beteko dozuz-eta! Patxo potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE, hillaren 28xan 5 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Mikel nebaren partez.



Zorionak, ANDER eta MIREN! Onenak zarie! Musu mordo bat etxeko guztien partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 657-479770.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Ford SMax autoa salgai. 7 plazakoa. 8 urte. 6.200 euro. Tel. 618-748143.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Taberna-jatetxea alokagai Urkizun. Tel. 615-784312.
– Trasteroa edo garaje itxia erosiko nuke Arragueta kale inguruan. Tel. 606-088412.
– Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-003400.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko edozein ordutan. Tel. 632-551711.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsalde eta gauze. Tel. 666-771151.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.
– Neska eskaintzen da txakurrak pasiatzeko eta goizez umeak eskolaratzea. Tel. 687-033834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 653-569377.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauze ere. Tel. 664-357381.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 689-571882.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauze eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-490595.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta baita gauze ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-529252.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta baita gauze ere. Tel. 602-089662 eta 631-901987.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-527536.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo gaixok zaintzeko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. Tel. 631-343232.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 691-680634.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-946934.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-552182.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 691-616356.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-763558.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan garbiketarako egiteko. Tel. 689-003537.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 646-344937.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 642-142985. Yolanda.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-166357.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-482203.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-237455.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-648923.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 608-651142.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-292201.
– Haur Hezkuntzako irakaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Premien arabera. Tel. 688-862668.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-917962.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolaratzea. Margotze eta marrazte klaseak emateko prest. Tel. 645-728317.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko: umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... Tel. 631-230281.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Externa. Tel. 600-840833.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-700803.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-722291.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde, gauze eta asteburuetan. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 654-154301.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 602-844282.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta umeen etxeko lanak egiteko. Titulua eta esperientzia. Tel. 688-639371.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-345286.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-521520.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 688-818176.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta sukaldari jarduteko. Tel. 657-479770.
– Emakumea eskaintzen da interna edo externa. Tel. 631-110716.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.

4.2. Langile bila

– Jatorriz ingeles hiztuna den neska behar da bi ume zaintzeko. Egunero bi ordu, astelehenerik ostiralera. Tel. 649-816474.
– Neska bi behar dira publizitate eskaintzak egiteko. 22-28 urte artekoak eta Marketing edo Psikologia ikasitakoak. Sutondo Labaderokuan galdetu.
– Sukaldari-laguntzailea eta kamarera/o behar dira jatetxe batean. Tel. 665-308025 eta 685-286303.
– Sukaldari edo sukaldari-laguntzailea behar da jatetxe baterako. Esperientziarekin. Tel. 620-810120.
– Kamareroa behar da Soroluzen jornada osorako. Tel. 615-750942.
– Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum: eibarkafe@gmail.com
– Kamarera/o behar da orduka Eibarren. Bidali curriculum: tre@euskalnet.net
– Eibarko akademiak ingeleseko irakaslea behar du. Esperientzia ezinbestea. Bidali curriculum: irakasleeibarCV@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Musiken ikasitakoak gitarra klaseak ematen ditu. Adin guztietarako. Tel. 652-217737. Mariano.
– Klase partikularrak ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.
– LHko irakaslea naiz eta klase partikularrak emango nituzke, ingelesa barne. Prezio onean. Tel. 688-659861. Markel.
– Itallera ikasi edo praktikatu nahi baduzu, maila guztietako eskolak eta mintza-praktikak eskaintzen dira Eibarren. Tel. 645-723818.
– Klase partikularrak eskaintzen dira LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. Tel. 695-749105.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
– Sehaska salgai, koltxoia eta guzti. Egoera oso onean, gubi erabilia. 70 euro. Tel. 687-675484.
– Sukaldea salgai bonbonak eramatekoarekin. 0'90 zabalerakoa. Gasarena eta labea. Tel. 617-688311.
– 3. mailako DBHko liburuak saltzen ditut. Tel. 645-007388.

6.2. Eman

– 2 urteko pitbull txakurra oparitzen da. Marroia, tamaina ertainekoa eta ondo hezita. Tel. 647-952677.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrate egunean, zelaian. Funda barruan daude eta forma karratua dute. Tel. 665-732640.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv
16.900 €

i20 Fresh MPI 85 cv
8.900 €



i30 Klass TGDI 120 cv
13.500 €

OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESSIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80

IRUN

Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI



Hyundai Gama i30 5 ate: CO₂ emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.
Hyundai Tucson Gama: CO₂ emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziarioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com

Zure enpresa erakusteko
leku aparta

GIDA

KOMERTZIALA 2018

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta
herriko komertzio, enpresa,
bulego, ikastetxe, osasun-
zentro... guztietan banatzen da




publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





UGaN^{klub}

- indoor zikloa ·
- mantenu gimnasia+55 ·
- power ·
- aerobik ·
- TRX ·
- krossfit ·
- pilates ·
- total kardioa ·
- GAP ·
- mikrogimnasia ·
- yoga ·
- aerobik ·
- **jumpfit** ·
- **fitness** ·
- **zumba kids** ·



TARIFA LAUA: 60€ · FITNESS TARIFA: 50€

**“Zuk nahi duzun ekintza,
zuk nahi duzunean”**